

Espediente mota: Administrazio kontratazioa

Kontratua: Zerbitzu kontratua, prozedura irekiaren bidezkoa

**“SANCTI SPIRITUS” ZAHARREN EGOITZAKO HARRERA ZERBITZU
KONTRATUAREN ADMINISTRAZIO-BALDINTZA ZEHATZEN ORRIAK
PROZEDURA IREKIAREN BIDEZKO ESLEIPENA**

I.- KONTRATUAREN EDUKINA

1. KONTRATUAREN XEDEA

Kontratuaren xedea hau da: “Sancti Spiritus” Zaharren Egoitzako harrera zerbitzua emotea.

Kontratua baldintza-agiri honetan oinarritzen da eta espedientean azaltzen den dokumentazio teknikoarekin bat etorritik egingo da. Baldintza-agiri honek kontratu-balioa du.

2. EPEA

Zerbitzua emateko epea lau urtekoa izango da. (2011ko urtarrilaren 1etik 2014ko abenduaren 31ra)

Zerbitzua epe horretan emoten ez bada, esleipendunak berandutzeagatik erantzukizunei aurre egin beharko deutse, nahiz eta Administrazioak aurretik ez ohartarazi.

3. KONTRATUAREN PREZIOA

Kontratuaren prezioa 180.279,28 €-koa da, BEZ kanpo. BEZari dagokion zenbatekoa 32.450,27 eurokoa da.

Kontratuaren prezioa lehenengo urterako, 45.069,82 €-koa da, BEZ kanpo. BEZari dagokion zenbatekoa 8.112,57 eurokoa da.

Eskaintzaileek diru kopuru hori hobetu daikee, baina beti ere, kontuan hartuko da eskaintzaileek hobetutako prezio horretan Balio Erantsiaren gaineko Zerga (BEZ) kanpo dagoela: Nolanahi ere, eskaintzaileak, adierazi beharko dau zein dan prezioa eta zein dan BEZari dagokion diru zenbatekoa.



4. FINANTZIAZINOA

Kontratuaren prezioa ordaintzeko behar beste diru aurreikusi da aurtengo ekitaldiko aurrekontuaren kontura.

5. NOLA ORDAINDU

Ordainketa HILERO egingo da, esleipendunak aurkezten duen faktura Patronatuak onartu ondoren eta hurrengo 30 egunen barruan.

6. PREZIOAK BERRAZTERTZEA

Prezioen berraztertzea onartzen da, Sektore Publikoaren Kontratuen 30/2007 Legearen 78 – 82. artikuluetan ezarritakoaren arabera. Aplikatuko den berraztertze formula honako hau izango da: aurreko urteko KPlaren %85a (78.3. artikulua).

7. BERMEAK

Esleipendunari behin-behineko esleipena jakinarazten zaionetik hamabost (15) eguneko epean, esleipendunak behin betiko bermea sartu beharko du Udaleko Diruzaintzan, hau da, esleipen prezioaren %5, BEZ kanpo.

Kontratuaren epea amaitzen denean, berme hori esleipendunari itzuliko zaio, osorik edo, bidezkoa bada, zati batean, baldin eta kontratuko betebeharrak guztiak beteriak badaude.

8. KONTRATUA BURUTZEA

Sektore Publikoaren Kontratuen 30/2007 Legearen 102.1 artikuluari jarraituz, kontratu hau burutu ahal izateko, gizartearen alorreko honako baldintza berezi hau bete beharko da derrigorrez:

- **HARRERA ZERBITZUA EMAN BEHAR DUTEN PERTSONEK ELBARRITUAK IZATEA.**

Kontratua burutzeko baldintza berezi horrek kontraturako funtsezko betebeharra da, eta beraz, betebeharrak ez betetzeak kontratua etetea ekar dezake berarekin, Sektore Publikoaren Kontratuen 30/2007 Legearen 206.g) artikuluan adierazten den moduan. Era berean, Administrazioak zigorrak ezartzeko aukera izango du Sektore Publikoaren Kontratuen 30/2007 Legearen 196.1. artikulua xedatzen duenaren arabera, hau da: zigorrak ezar ditzake, era proportzionalan, ez-betetzearen larritasuna nolakoa izan den kontuan hartuta, eta zigorraren diru kopurua ezin daiteke kontratuko aurrekontuaren %10 baino handiagoa izan.



Bestalde, baldintza-agiri honetan ezarritako orduan eta lekuan eman beharko da zerbitzua, xehetasun tekniko eta administrazio-baldintzekin bat etorritz. Dana dala, Administrazioak, kontratuak dirauen bitartean, hitzartutakoa ez, beste leku bat aukera daike.

Kontratua esleipendunaren gain eta kontura burutuko da.

Kontratua Udalaren zuzendaritza, ikuskapen eta kontrolarenpean burutuko da, eta Udalak idatziz nahiz ahoz erabili ahal izango dauz ahalmen horreek.

Esleipendunari edo honen agindupekoei egotz dakiekeen egite edo ez-egiteren baten ondorioz, Administrazioak uste izaten badau kontratua behar bezala burutzea kolokan dagoela, kontratua behar bezala burutu daiten beharrezkotzat jotzen dauzan neurriak hartu daitezala agindu ahal izango dau.

9. ESLEIPENDUNAREN LAN-EGINKIZUNAK

Esleipendunak lanaren, Gizarte Segurantzaren eta laneko segurtasun eta higienezaren arloan indarrean dauden legezko xedapenak bete behar dauz. Bereziki, Bermeoko Udalak onartutako Laneko Arriskuen Prebentzioa Kudeatzeko Sistemaren helburuak bete beharko dauz. Administrazioak ez du inolako erantzukizunik izango xedapen horiek betetzen ez badira.

Lanak egiten jardungo duen enpresak, hau da, esleipendunak, udalari eta herritarrei jagokenean, aurrez-aurreko harreman, txosten eta azalpen guztiak, ahozko zein idatzizkoak, euskeraz burutu beharko dauz. udalak euskera baino ez dau erabiliko bere harremonetan, idatzizko zein ahozkoetan, eta ez dau inolako itzulpenik eskainiko.

10. ESLEIPENDUNAREN ERANTZUKIZUNA KONTRATUA BURUTZERAKOAN BESTE BATZUEI KALTEAK ERAGITEN BADIZKIE.

Esleipendunaren ardura da kontratuko eragiketen ondorioz sor litezkeen kalteak eta galerak bere gain hartzea, Sektore Publikoaren Kontratuen 30/2007 Legearen 198. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritz.

11. KONTRATUA ALDATZEA

Herri-onurako arrazoiak direla eta, Administrazioak kontratua aldatzea izango dau, behar berriak edo ustekabeko arrazoiak sortzen direnean. Esleipendunak ez du inolako kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik izango, Sektore Publikoaren Kontratuen 30/2007 Legearen 282. artikuluan ezarritakoaren kalterik gabe.



12. ZERBITZUA HARTZEA ETA BERME-EPEA

Kontratuaren xedea den zerbitzua amaitzean, esleipendunak emondako zerbitzuari buruzko txosten edo memoria aurkeztu beharko dau.

Kontratu-mota honen izaera dela eta, ez da berme-eperik jarri behar.

13. ESLEIPENDUNARI EZARRI BEHARREKO ZIGORRAK BALDINTZAK BETETZEN EZ BADITU

A) KONTRATUA BURUTZEKO EPEAK DIRELA ETA

Esleipendunaren erruagatik, kontratua burutzeko epe osoa edo epe partzialak igarotakoan kontratua burutu gabe badago, Administrazioak bi aukera izango ditu: kontratua bertan behera utzi eta bermea bereganatzea, edo kontratua burutu arte igarotzen den egun bakoitzeko diru-zigorra ezartzea: egunean 0,20 euro kontratuaren prezioaren 1.000 euroko (196. artikulua).

Atzerapenagatiko zigorren guztizko zenbatekoak kontratuaren prezioaren 100eko 5aren multiploren bat jotzen duen bakoitzean, kontratazio-organoak aukera izango du kontratua bertan behera uzteko edo zigor gehiago ezarri eta burutzapenean aurrera egin dadila erabakitzeko.

B) PRESTAZIOEN BURUTZAPEN PARTZIALA DELA ETA

Esleipendunak, bere erruagatik, kontratuko prestazioen burutzapen partziala epean bukatzen ez badu, Administrazioak bi aukera izango ditu: kontratua bertan behera uztea edo baldintza administratibo berezien orrietan aipatzen diren zigorrak ezartzea (196.7. artikulua).

14. KONTRATUA AMAITZEKO ARRAZIOIAK

Kontratua amaitzeko arrazoiak Sektore Publikoaren Kontratuen 30/2007 Legearen 206. eta 284. artikuluetan azaltzen direnak izango dira.

15. ADMINISTRAZIOAREN ESKUBIDEAK

Administrazioari dagokio a) kontratua interpretatzea, b) kontratuan sor daitezkeen zalantzak ebaztea, c) herri-onurako arrazoiengatik kontratua aldatzea, d) kontratuari amaiera ematea eta amaiera horren ondorioak zehaztea, Sektore Publikoaren Kontratuen 30/2007 Legeak ezarritako muga, baldintza eta ondorioei eutsiz.



II.- KONTRATATZEKO JARDUNBIDEA

16. ESLEIPENA EGITEKO BIDEA ETA MODUA

Kontratu honen esleipena lehiaketa ireki bidez egingo da, Sektore Publikoaren Kontratuen 30/2007 Legearen 141. eta 134. artikuluetan ezarritakoarekin bat etorriz.

17. KONTRATATZEKO GAITASUNA ETA KAUDIMENA

Zuzenbideko eta jarduteko gaitasuna duten pertsona fisiko zein juridikoek parte hartu ahal izango dute kontratazio-jardunbide horretan, baldin eta beren kaudimen teknikoa eta ekonomikoa frogatzen badituzte, eta kontratatzeko debekuren bat ez badute, Sektore Publikoaren Kontratuen 30/2007 Legearen 49. artikuluan adierazitako arrazoiak direla eta. Kaudimena egiaztatzeko eta ebaluatzeko bideak 19. baldintzan ezarritakoak izango dira.

Pertsona fisiko edo juridikoek beren kabuz edo baimendutako ordezkarien bitartez kontratatu ahal izango dute. Ordezkariak kontratatuz gero, berariaz emandako ahalorde askietsia erabili beharko dute. Pertsona juridiko baten ordezkari baten kideren bat azaltzen denean, ordezkari izateko ahalmena duela frogatu beharko du agiri bidez. Bi kasuetan ere, kontratatzeko gaitasunik eza dakarten arrazoiak, gorago aipatutakoak, ordezkariari ere aplikatu behar zaizkio.

Gainera, lehiatzaileen jarduera nagusiak zerikusi zuzena izan behar du kontratu honen gaiarekin, eta haien erakundeak kontratua burutzeko behar beste giza baliabide eta baliabide material eduki behar ditu.

18. ESLEIPEN IRIZPIDEAK

Hala ere, Sektore Publikoaren Kontratuen 30/2007 Legearen 134. Artikuluak xedatutakoa beteaz, ondorengo esleipen irizpideak ezartzen dira, baita hartzen dan erabakiaren hastapena ere.

1. Eskaintza ekonomikoan hobekuntzak: 60 punturarte baloratuko da.
Eskaintza ekonomikoaren moetea gutxitzen dan %0,2ko, puntu batean baloratuko da.
2. Zerbitzua gauzatzeko proposamen Teknikoa: Enpresak agiri tekniko baten bidez kontratatu nahi dan zerbitzuaren proposamena 30 punturarte baloratuko da.
3. Zerbitzuaren hobekuntzarako proposamenak: Atal honetan zehaztu diran zerbitzuei buruzko hobekuntzetatik aparte, enpresak agiri tekniko baten aurkezten dauzan bestelako hobekuntza bakoitzagaitik 2 puntu, gehienez 10 puntu (proposamenak zerbitzuren hobekuntzarako izan behar dira).



Kontratu honen esleipenerako, eta 30/2007 Legearen seigarren xedapen gehigarrian arautzen denez, lehentasuna ezartzen da, minusbaliadun langileen kopurua %2a baino gutxiagokoa EZ diran plantiladun lizitatzailen alde, horrela frogatzen dabenean gaitastun teknikoa kreditatzerakoan, beti ere, honeek aurkezten daberen proposamenak, eskaintza hoberearen terminoak bardintzen badabez, esleipenaren oinarri diran irizpide objektiboen ikuspuntutik konparatuz.

Eskaintzak aurkezteko epearen azken egunean, bere plantilan daukien minusbaliadun langile kopurua izango da kontutuan, lehentasun hau aplikatzerakoan, eta VII. Eranskinaren aitortzearen bitartez kreditatuko da. Lizitatzailak aipatutako aitortze agiria edota eskatutako datu guztiak aurkezten ez badau, ez jako lehentasun hau aplikatuko, %2ko minusbaliadun langile kopurura heltzen EZ dala ulertuko dalako efektu guztietarako, eta ezin izango dau inolaz ere akats hori zuzendu.

Aldi baterako enpresa elkarrekin edota hainbat lizitatzailerik aldi batera partehartzen badabe, lehentasun hau aplikagarri izango da, langile minusbaliatuen kopuruak aipatutako indizea gaitatzen daberen plantilak daukiela ulertzen danean, kontratuan lizitatzailerik bakoitzaren partehartzearen proportzioan.

19. PROPOSAMENAK AURKEZTEA

Kontratazio honen espedienteak, bai eta horrekin batera doan dokumentazio teknikoa ere, honako lekuan, ordutegian eta epean aztertu eta proposamenak aurkeztu ahal izango dira:

LEKUA: Bermeoko Gizarte Ongizaterako Udal Patronatua (Areilza kalea 4-Bermeo-Bizkaia)

ORDUAK: Asteleheneetik barikura 9.00-14:00. Larunbatetan 10:00 – 13:00 (Berh@z bulegoa. Ertzila Kalea 6-8 - 48370 Bermeo-Bizkaia).

EPEA: Egun baliorduetan, lehiaketa honen iragarkia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera eta proposamenak aurkezteko epea bukatu arte.

Proposamenak gorago adierazitako lekuan eta ordutegian aurkeztuko dira, hamabost (15) egutegiko epean, iragarkia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean publikatzen den hurrengo egunetik zenbatzen hasita

Lehiatzaileek bi kartazal (A eta B) aurkeztu beharko dituzte itxita. "A" kartazalaren azpititulua hau izango da: "KONTRATATZEKO GAITASUNA ETA KAUDIMENA". Hona hemen "A" kartazalaren aurkeztu beharreko agiririk:

- a) Lehiatzailearen edo haren ordezkariaren nortasun-agiriaren fotokopia, eta horrez gain, beste pertsona edo erakunde baten izenean badihardu, notario-ahalordea.

Lehiatzailea persona juridikoa izanez gero:

- Dagokion Erregistro publikoan behar bezala erregistratutako eskritura edo eratze dokumentua, estatutuak edo sortze data.



- Administrazioarekin kontratatu ahal duela egiaztatzen duen eskritura edo ziurtagiria, proposamena sinatzen duenaren alde.
 - Arduradunaren NAN.
- b) Kontratatzeko debekurik ez duela aitortzea (II Eranskina).
- c) Zerga-betebeharrak nahiz Gizarte Segurantzakoak betetzen dituela kreditatzen dituzten ziurtagiriak.
- d) Ekonomi Jardueren gaineko Zergan, kontratuaren gaiari dagokion epigrafean hain zuzen ere, alta eman diotela frogatzeko, lehiatzaileak alta-agiria aurkeztuko du, uneko ekitaldian bertan hartua badu, edo EJZren azken ordainagiria, gainerako kasuetan. Beti ere, zerga horren matrikulan bajarik hartu ez izanaren erantzukizunpeko adierazpena erantsiko du.
- e) Eskatutako dokumentu eta baliabideen bidez behar bezala egiaztatutako kaudimen tekniko edo profesionala (VI. Eranskina).
- f) Eskatutako dokumentu eta baliabideen bidez behar bezala egiaztatutako ekonomia eta finantza-kaudimena (V. Eranskina).
- g) Eskatzen bada, indarreko empresa-sailkapenaren ziurtagiria.

*Eusko Jaurlaritzako Kontratisten Erregistro Ofizialean edota Bizkaiko Foru Aldundiaren Lizitatzailleen Erregistroan izena eman badago, aipatutako dokumentazioaren ordezkari haur aurkeztu beharko da:

- Eusko Jaurlaritzako Kontratisten Erregistroan izena emanda dagoen indarreko egiaztatutako.
- Egiaztatutako jasotako datuak eta egoerak baliozkoak diren eta indarrean dauden zinpeko aitortpena (IV. Eranskina).

Jatorrizko agiriak edo kopiak aurkez daitezke. Kopia aurkeztekotan, behin-betiko esleipena egin orduko, Administrazioak edo notarioak behar bezala kautotu edo egiaztatu behar ditu.

“B” kartazalaren azpititulua hau izango da: “DIRU-PROPOSAMENA”. Hona hemen “B” kartazalean aurkeztu beharreko agiriak:

- a) **Proposamen bakarra**, eskaintzaileak edo aurkeztzen duen pertsonak **sinatuta**, administrazio-klausula partikularren Pleguaren I **Eranskin gisa agertzen den ereduaren arabera** idatzita.
- b) Hala aurreikusten bada, B gutun-azal honetan proposamen ekonomikoaren ereduaren Eranskinak sartuko dira.
- c) Dokumentazio Teknikoa : Eskaintzaileek orrialdeak zenbatuta dituen dossier bat aurkeztu behar izango dute, dagokion izenburuarekin. Hala, banan-banan jaso beharko dira lehiaketa esleitzeko baloratuko diren irizpideei buruzko alderdi oro.



Ez dira onartuko proposamen hauek:

- Kontraesanak, ez aipatzeak, akatsak edo zirriborroak dituztenak, Administrazioak eskaintza aintzat hartzeko funtsezkotzat jotzen duena argi ikustea eragozten badute.
- Aztertutako eta onartutako dokumentazioarekin bat ez datozenak.
- Eskaintzaren aurrekontua edo gehienezko tasa gainditzen dutenak.
- Proposamenaren zenbatekoan akats argia dutenak.
- Pleguaren I. Eranskin gisa ezarritako proposamen eredia nabarmen aldatzen dutenak.
- Eskaintzailearentzat bidera ezin egiten duten akatsak edo funtsik ez dituztenak.

Letretan adierazitako eskaintza zenbakietan adierazitakoarekin bat ez badator, letretan adierazitako kopurua nagusituko da; dokumentazioa aztertu eta gero, arrazoizko irizpideak erabiliz, Kontratazio Mahaiak beste jarrera bat hartzen ez badu salbu.

Eskaintza bakoitzak proposamen bakarra aurkeztu ahal izango du. Pleguan baimena ematen bada bakarrik, soluzio aldakorrik izan ahalko ditu; hortaz, eskaintza ekonomikoak ere ezberdinak izan ahalko dira.

20. AGIRIAK SAILKATZEA, ENPRESAK AUKERATZEA ETA PROPOSAMENAK IREKITZEA

Eskaintzak aurkezteko epea amaitu eta gero, hilabeteko epean gehienez (144.1. Art), Kontratazio Mahaiak epe eta modu egokian jasotako dokumentazioa ("A" kartazala) sailkatuko dau, eta, dokumentazio horretan akats materialak somatuz gero, hiru laneguneko epea emango deutso lehiatzaileari akatsa zuzen daian.

Aurkeztutako eskaintzak ("B" kartazala) jendaurrean irekiko dira Kontratazio Mahaiak erabakitako egunean, eta, "A" kartazalean egon ahal izan diran akatsak zuzendu eta gero. Telefonoz edo faxez emongo jake aurretiaz horren barri lehiatzaileei.

Ondoren, eta, hala badagokio, egoki diran txosten teknikoak egin eta gero, Kontratazio mahaiak esleipena egin behar dauan Kontratazio Organoari pasako deutso esleipen proposamena.

21. ESLEIPENA, FORMALIZAZIOA ETA GASTUAK

Behin-behineko esleipena hamabost (15) eguneko epean egingo da, proposamenak ireki eta biharamunetik kontatzen hasita. Behin-behineko erabakia lizitatzailerai jakinaraziko zaie. Horrez gain, web orrialdean publikatuko da.

Behin-behineko esleipenaren erabakiaren jakinarazpena jaso eta biharamunetik zenbatzen hasita hamabost (15) egun balioduneko epean, behin-behineko esleipenerako proposatuta dagoen lehiatzaileak honako hauek egin beharko ditu:

- a) Zerga-betebeharrak nahiz Gizarte Segurantzakoak betetzen dituela kreditatzen



duten ziurtagiriak aurkeztu, lehen aurkeztu ez badu.

- b) Behin betiko bermea eta, egoki bada, berme osagarria jarri.
- c) Jendaurreko zabalkunde ofizialean gastuak egin badira, aldizkari ofizial eta argitaraldi bakar bateko gastuak ordaindu.
- d) Dokumentazio orokorraren artean, agiriren bat kautotuta edo egiaztatuta aurkeztu ez bada, hori aurkeztu.
- e) Azkenik, administrazio honen bulegoetara etorri, kontratua administrazio-agiri gisa formalizatzeko. Kontratua hamar (10) egun balioduneko epean formalizatuko da, behin-betiko esleipena jakinarazten den eguneko biharamunetik zenbatzen hasita.

Aurreko epea igarota, behin-betiko esleipena egingo da, hori web orrialdean publikatuko delarik. Kontratuaren prezioa 100.000 euro baino handiagoa izango balitz, behin-betiko esleipena BAOen ere publikatu beharko litzateke.

Kontratuaren behin betiko esleipena behin-behineko esleipendunari egitea ez denean bidezkoa, ez dituelako horretarako beharrezko baldintzak betetzen, beste lehiaketa bat egin aurretik, administrazioak, behin-behineko beste esleipen bat egin ahal izango du hurrengo lehiatzailearen edo lehiatzaileen alde, eskaintzak sailkatuta geratu diren hurrenkeraren arabera, betiere hori posible bada eta esleipendun berriak adostasuna agertu badu. Kasu horretan, esleipendun horri hamar laneguneko epea emango zaio aurreko ataleko bigarren paragrafoan adierazitakoa bete dezan.

Prozedura hori erabili ahal izango da erregulazio harmonizatuari lotuta ez dauden kontratuen kasuan ere, hasitako kontratu bat betetzen jarraitzea bada kontua eta kontratu hori ebatzitzat adierazia izan bada.

Kontratazio-organoak egingo duen esleipenaren bitartez, kontratuak indar juridikoa hartuko du.

Esleipendunaren erruagatik kontratua formalizatu gabe geratzen bada, Administrazioak bertan behera utzi ahal izango du kontratua, interesduna entzun eta gero, eta kalte-galerak ordainduko dira.

22. KONTRATUA FORMALIZATZEARI ADMINISTRAZIOAK UKO EGITEA

Kontratazio organoak uko egiten badio deialdia egin ostean kontratu bat egiteari, edo esleipenerako prozedura berriz hastea erabakitzen badu, hautagaiei edo lehiatzaileei jakinaraziko die, eta Europako Batzordeari ere jakinaraziko dio erabaki hori kontratua Europar Batasuneko Egunkari Ofizialean argitaratu bada.

Kontratua egiteari uko egitea edo prozedura bertan behera uztea kontratazio organoak baino ezin dezake erabaki, behin-behineko esleipenaren aurretik. Kasu bietan hautagaiei edo lehiatzaileei izan dituzten gastuak konpentsatuko zaizkie, iragarkian edo baldintza-agirian jasotako moduan, edo Administrazioaren erantzukizuna arautzen duten



printzipio orokorren arabera.

Espedientean behar bezala justifikatutako interes publikoko arrazoiengatik baino ezin izango zaio uko egin kontratu bat egiteari. Kasu horretan, ezin izango da xede berarekin beste lehiaketarik sustatu uko egite horren oinarria izan diren arrazoiak bere horretan dirauten bitartean.

Prozeduraren uko egitearen oinarria kontratua prestatzeko arauetan edo esleipen prozedura arautzekoetan konpon ezin litekeen arau-haustea izan beharko da, eta arrazoi hori dagoela justifikatu beharko da espedientean. Uko egiteak ez du eragotziko beste lehiaketa prozedura bat hastea berehala.

III. IZAERA, ERREGIMEN JURIDIKOA ETA JURISDIKZIO ESKUDUNA

23. IZAERA ETA ERREGIMEN JURIDIKOA

Baldintza-agiri honen arabera egin behar den kontratua administrazio-mailakoa izango da, eta kontratuan bertan zehazten ez den guztiari dagokionez, bereziki Sektore Publikoaren Kontratuen 30/2007 Legean ezarritako arauak bete beharko dira. Horiez gainera, Herri Administrazioen Kontratuak buruzko Legearen Araudi Orokorrak, eta bai herri administrazioen kontratazioan erabili beharreko gainerakoak ere.

Administrazio-baldintza zehatzen agiri honen eta espedientearekin batera doan dokumentazio teknikoaren artean kontraesanak izanez gero, agiri honetan zehaztutakoa nagusituko da.

24. KONTRATAZIO ARLOKO ERREKURTSO BEREZIA

30/2007 Legearen 37. artikuluko 2. atalean aipatzen diren erabakiak, harmonizatutako erregulazioaren mende dauden kontratuen esleipen prozeduretan hartzeko, subentzionatutako kontratuak, II. Eranskineko 17.etik 27. kategoriara arte sailkatuta dauden eta 206.000 euroko edo gehiagokoak diren zerbitzu kontratuak, eta hastapen-gastuen aurrekontua 500.000 eurokoa eta iraupen epea bost urte baino gehiagokoa duten zerbitzu publikoen kudeaketa kontratuak barne, administrazioarekiko auzi-errekurtsua jarri baino lehen, artikuluko honetan arautzen den kontratazio arloko errekurtsu bereziaren mende egongo dira. 97. artikuluan arautzen den larrialdiko tramite bidezko esleipen prozeduretan ebatzitako ekintzetan ez da errekurtsu hau emango.

Errekurtsu bereziaren mende egon ahal izango dira behin-behineko esleipen akordioak, lehiaketa arautzen duten baldintza agiriak eta prestazioaren ezaugarriak ezartzen dituztenak, eta aurreko prozeduran hartutako tramite ekintzak, betiere azken horiek esleipenean zuzenean edo zeharka erabakitzen badute, prozedura jarraitzea eragozten badute edo defentsarik eza edo bidezko eskubideren edo interesen baten konpondu ezinezko galera eragiten badute.



Aurreko paragrafoan aurreikusitakoez aparte beste ekintza batzuei eragiten dieten tramitazio akatsak espedientea egitea dagokion organoari edo kontratazio organoari jakinarazi ahal izango diete interesdunek, zuzen dezaten, eta behin-behineko esleipen ekitaldia errekurritzerakoan interesdunek eragiten dieten irregulartasunak alegatu ahal izatearen kalterik gabe.

Errekurtsoa beren bidezko eskubideetan edo interesetan kalteak jasan dituzten pertsona fisikoek eta juridikoek aurkeztu ahal izango dute, edo errekurtsoren xedea diren erabakiengatik kaltetuak izan daitezkeenek eta, edozein kasutan, lehiatzaileek.

Autonomia erkidego bakoitzeko arauak ezartzen dutenaren kalterik gabe (eta edozein kasutan, administrazio bidea agortzen duten erabakiak emango dituen organo batek izan beharko du eskumen hori), errekurtsu berezia ebazteko eskumendunak izango dira: kontratazio organoa administrazio publiko baten kontratuak badira, edo erakunde kontratatzailea atxikita dagoen saileko, organoko, erakundeko edo organismoko burua edo haren zaintza daukana, horrek ez badauka administrazio publiko izaerarik. Azkeneko kasu horretan, erakunde kontratatzailea administrazio batekin baino gehiagorekin lotuta dagoenean, kontrol edo partaidetza nagusia daukanari dagokion organoa izango da eskumenduna.

Kontratu subentzionatuei dagokienez, eskumena izango du subentzinoa eman duen saileko, organoko, erakundeko edo organismoko titularrak, edo subentzinoa eman duen erakundea atxikita dagoenekoak, horrek ez badauka administrazio publiko izaerarik. Sektore publikoko subjektu desberdinetako subentzioak dauden kasuetan, zenbateko handieneko subentzinoa kontuan hartuta zehaztuko da eskumena eta, zenbateko berdinetan, lehenengo eman dena kontuan hartuta.

Kontrako berariazko zehaztapenetan izan ezik, kontratazio arloko errekurtsu berezia ebazteko eskumena kontratatze eskumenarekin batera eman dela ulertuko da. Hala ere, kalteen ondoriozko kalte-ordainak ezartzeko ahalmena ezin izango da eskuordetu, eta horren gainean, edozein kasutan, organo eskuordetzaileak ebatzi beharko du. Eragin horietarako, kalte-ordain bat onartzea bidezkotzat joz gero, espedientea organo eskuordetzaileari igorriko zaio, eta hark, aurretiaz eta berariaz eskumenak bereganatu beharrik gabe, dagokion errekurtsoren gainean ebatziko du.

Kontratazio arloan errekurtsu berezia ezartzeko epea hamar lanegunekoa izango da, aurkaratutako ekintza jakinarazten edo argitaratzen den egunaren hurrengotik aurrera zenbatuta. Errekurritutako ekintza kontratuaren behin-behineko esleipena bada, epea zenbatuko da ekintza hori egunkari ofizial baten edo kontratazio organoaren kontratatzailearen eskakizunetan argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera, 135.4 artikuluan adierazitakoaren arabera.

Errekurtsu idazkia kontratazio organoaren erregistroan aurkeztu beharko da, edo errekurtsoren gainean ebazteko eskumena daukan organoaren erregistroan. Idatzi horretako akatsak, hala badagokio, hiru laneguneko epean zuzendu beharko dira.

Kontratuaren esleipen prozedura 96. artikuluan aurreikusitako premiazko bidetik tramitatzen bada, errekurtsua aurkezteko epea zazpi lanegunekoa izango da, eta akatsak konpontzekoa bi lanegunekoa.



Errekurritutako ekintza behin-behineko esleipena bada, kontratazio espedientearen tramitazioa bertan behera geratuko da errekurtsua berariaz ebatzen den arte, eta, beraz, ezin izango da behin betiko esleipenik egin ez kontratua egin. Hala ere, errekurtsua enpresaburu batzuek, kopuru mugarik gabe, parte har dezaketen esparru akordio baten behin-behineko esleipen ekintza baten kontra ezarri bada, ebazpena emateko eskumena daukan organoak bertan behera geratzea altxatu ahal izango du errekurtsua aurkeztu denetik bost lanegun igaro eta gero.

Errekurtsu bat aurkezten bada, horren berri emango zaie gainerako interesdunei, eta bost laneguneko epea emango zaie alegazioak aurkezteko. Era berean, espedientea tramitatu duen erakunde, organo edo zerbitzuari espedientea eskatuko zaio, eta hurrengo bi lanegunen barruan igorri beharko du dagokion txosten eta guzti. Lehiatzaileak, edozein kasutan, interesdunak izango dira errekurtsoen prozeduran.

Interesdunen alegazioak jaso ostean, edo alegazioak aurkezteko epea igaro ostean, eskumendun organoak hurrengo bost lanegunen barruan eman beharko du errekurtsuaren gaineko ebazpena, eta ebazpenaren berri interesdun guztiei eman beharko die. Edozein kasutan, errekurtsua jarri zenetik hogeitaz lanegun igaro badira eta ez bada ebazpenaren berri eman, interesdunak ez onartuzat jo ahal izango du administrazioarekiko auzi-errekurtsua aurkezteko eraginetarako, berariazko ebazpena emateko betebeharraren kalterik gabe eta, hala badagokio, berariazko ebazpena ematen den bitartean, 7. atalean ezarritako bertan behera geratzea altxatu gabe.

Errekurtsuaren ebazpenak errekurtsua edo haren parte bat baietsiko ditu, edo formulatutako asmoak ezetsiko ditu, edo ez onartuzat adieraziko ditu, eta arrazoituta erabakiko ditu aurkeztutako kontu guztiak. Edozein kasutan, ebazpena bat etorriko da eskabidearekin eta, onartuz gero, esleipen prozeduran hartutako legez kanpoko erabakien deuseztapenaren gainean ebatziko du, lehiaketa iragarkian, gonbit iragarkian, baldintza-agirietan, kontratua edo lehiaketarekin edo esleipenarekin zerikusia daukan beste edozein dokumentu arautzeko baldintzetan jasotako ezaugarri tekniko, ekonomiko edo finantzario baztertzailak ezabatzea barne hartuta, baita ekintzen atzeraeraginaren gainean edo prozedurako arau-haustearen ondorioz kalteak jaso dituzten pertsonen kalte-ordaina ematearen gainean ere.

Errekurtsuaren ebazpenean erabakiko balitz kontratua beste lehiatzaile bati esleitzea, azkeneko horri hamar laneguneko epea emango zaio 135.4 artikuluko bigarren paragrafoan jasotakoa betetzeko.

Errekurtsuaren ebazpenaren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsua baino ezin izango da aurkeztu, Administrazioarekiko Auzietarako Eskumenei buruzko uztailaren 13ko 29/1998 Legean ezarritakoaren arabera.



25. JURISDIKZIO ESKUDUNA

Kontratutik sortzen diren auziak Administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren menpe egongo dira. Nolanahi ere, bi alderdiek nahi izanez gero, auziak arbitrajearen bidez konpondu daitezke, indarrean dagoen legerian zehaztutakoarekin bat etorriz.

Bermeon, 2010eko maiatzaren 19an

